



MINISTERIO
DEL INTERIOR



ZIRKULAZIOKO BAIMENAREN KOPIAK ETA BERRITZEAK

GARRANTZITSUA: Edozein buruzagitzatan izapidea egin baino lehen, aurretiko zita eskatu behar duzu.

BETEKIZUN OROKORRAK

- **Eskabidea** inprimaki ofizialean. (*Inprimakia eskura duzu www.dgt.es webean*)
- **Interesdunaren identifikazioa:**
 - Pertsona fisikoak: titularraren identitatea eta helbidea ziurtatzen duen agiri ofiziala (indarrean dagoen NANA, Espainiako gidabaimena, bizileku-txartela, pasaportea gehi Atzerritarren Identifikazio-zenbakia).
 - Pertsona juridikoak: sozietateko identifikazio fiskaleko txartela eta sinatzen duen ordezkaria eta identitatea ziurtatzea. (*Inprimakia eskura duzu www.dgt.es webean*)
 - Adingabeak edo ezgaituak: aita, ama edo tutorearen datuak eta sinadura, NANA eta diharduten kontzeptua ziurtatzen duen agiria.
- **Ibilgailuaren agiriak:** zirkulazioko baimena (galtze edo lapurtzekotan izan ezik).

NARRIATZE, GALTZE EDO LAPURTZEARENGATIKO KOPIA

- **Tasa:** 20,40 €. (Ez dago eskudirutan ordaintzerik)

DATUAK ALDATZEARENGATIKO BERRITZEAK: IZEN-ABIZENAK, IZEN SOZIALA

- **Tasa:** 20,40 €. Izapidea doan da pertsona fisikoen identifikazio-agirietan dauden datuak aldatzekotan. (Ez dago eskudirutan ordaintzerik)
- Aldaketaren egiaztatzea: aldaketa dagoneko jasota dagoen NAN/sozietatearen identifikazio fiskaleko txartelaren jatorrizkoa.
- Nekazaritzako ibilgailu berezia bada, lehen ROMari (Nekazaritzako Makineriako Erregistro Ofizialari) jakinarazi zizaioneko ziurtagiria).

OHARRA: izapidea titularrak aurkezten ez badu, honek sinatutako baimena eta bere NANA beharrezkoa izango dira, non doaneko izaera adieraziko den (www.dgt.es-n eredu eskuragarria).

Erroldatze-helbide eta EJGzko frogagiriaren aurkeztu ordez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak informazio hori telematikoki ziurtatzeko berriarazko baimena eman daiteke. Horretarako, izapide-eskabideko formularioan dagokion laukitxoak markatu, edo egoitza elektronikoko Trafikoko Buruzagitzetan eskuragarri dagoen berriarazko baimen-formularioa bete behar duzu. Informazio onargarria jasotzen ez bada, egin daitezkeen konponketak agiriak aurkeztea behar izango du.

Goian eskatutako datuen batek frogagiri fede-emailea ez badu, dokumentazio gehigarria eska daiteke.

HELBIDEA ALDATZEARENGATIKO BERRITZEAK

*Helbidearen aldaketa izapide dezakezu zenbait Udaletan.
Begiratu eskura dauden Udalak: www.dgt.es*

- **Doaneko** izapidea.
- Helbidea aldatzearen frogagiria: indarrean dagoen NANA, errolda-ziurtagiria, errolda-txartela ... Udalerriaz ez bada aldatzen, ur-, argi-, gas-ordainagiri bat nahikoa izango da...
- Kanaria, Ceuta eta Melillatik Penintsulara eta Balearretara etorritako ibilgailuak helbideaz aldatzekotan, ibilgailua Aduanaz aztertu egin delako ziurtagiria aurkeztu behar da. Agiri hau ematen ez baduzu, Aduanako departamentuari jakinaraziko diote. Inportazioa jasota geratzeko 8,40€ko tasa ordaindu behar da.

ZERBITZUAZ ALDATZE ETA ERREFORMA NABARIAK EGITEARENGATIKO BERRITZEAK

- **Tasa:** 20,40 €. (Ez dago eskudirutan ordaintzerik)
- Ibilgailuaren jatorrizko agiriak: **IAT txartelean** egindako erreforma edo zerbitzuaren aldaketa jasota egon behar da.
- Zenbait Garraiobidaren gaineko Zerga Bereziaren ordainketa/salbuespenaren frogagiria, matrikulatzean ordaintzeko salbuespena zuten autoeskoletako, gidari gabeko alokairuko eta taxi-txartelaren ibilgailuak zertarako aldatzekotan.
- Nekazaritzako ibilgailu berezia bada, lehen ROMari (Nekazaritzako Makineriako Erregistro Ofizialari) jakinarazi zizaioneko ziurtagiria.